

HORMA

MARLEN HAUSHOFER

ITZULPENEA: NAROA ZUBILLAGA



n a r r a t i b a •

erein

HORMA

n a r r a t i b a • 145

ere in

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

Lan honen argitalpenak Kultura eta Kirol Ministerioaren laguntza jaso du.



1. argitalpena: 2023ko maiatzean

Jatorrizko izenburua:
Die Wand

Diseinua eta maketazioa:
Erein argitaletxea
Azaleko irudia:
Leire Urbeltz

Egilearen argazkia:
© Sybille Haushofer, Steyr / Wien

© Ullstein Buchverlage GmbH, Berlin. Lehen argitalpena: Claassen Verlag, 1968an

© itzulpenarena: Naroa Zubillaga

© edizio honena: EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-828-7

L.G.: D 456-2023

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus


Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Marlen Haushofer

HORMA

Itzultzailea:
Naroa Zubillaga



erein



| Marlen Haushofer |

Guraoentzat

Gaur, azaroak bost, hasi dut txosten hau. Ahalik eta zehatzen jasoko dut dena idatziz. Hala ere, azaroak benetan bosgarren eguna ote duen ere ez dakit. Joan den neguan galdu egin nuen egun batzuen arrastoa. Asteko zein egunetan gauden ere ezin esan dezaket. Ez dut uste, hala ere, oso garrantzitsua denik hori. Ohar gutxi batzuen mende nago; gutxi batzuk dira, ez bainuen inoiz pentsatu txosten hau idatziko nuenik, eta beldur naiz gauza asko benetan bizi izandakotik desberdin gorde ote dituen nire oroimenak.

Akats hori txosten guztiei omen dagokie. Ez dut idazteko gogoak bultzatuta idazten; nagoen egoeran egonda, idatzi beharra dut, burua galdu nahi ez badut. Ez baitago nigatik pentsatuko duen eta nigatik arduratuko den inor. Bakar-bakarrrik nago, eta neguko hilabete luze eta ilunak gainditzen saiatu behar dut. Ez dut espero inork inoiz idatzi hauek aurkituko dituenik. Oraintxe bertan ez dakit halakorik nahiko nukeen ere. Beharbada txostena idaztez bukatutakoan jakingo dut hori.

Zeregin hau jarri diot neure buruari, berak babestuko nauelako ilunabarrari begira beldurrez geratzetik. Beldur bainaz. Alde guztietatik datorkit ikara herrestan, eta ez dut zain geratu nahi, harik eta niganaino iritsi eta azpian hartzen nauen arte. Ilundu arte idatziko dut, eta ezohiko lan berri honek nekakuta, hutsik eta logaletuta utzi behar dit burua. Ez nau bihar munak beldurtzen, ilunabarreko arratsalde luzeek baino ez.

Ez nago ziur zer ordu den. Arratsaldeko hirurak inguru, ziur aski. Galdu egin dut ordularia; bestela ere, ez zitzaidan bereziki lagungarria. Eskumuturreko urrezko ordulari bat zen, txiki-txikia; egiari zor, ordua inoiz zuzen erakusten ez zuen jostailu garesti bat. Bolaluma bat eta hiru arkatxak ditut. Bolaluma lehortu zait kasik, eta arkatzez ez dut batere gustura idazten. Idatzitakoa ez da paperean nabarmentzen. Marra gris leunak latsotu egiten dira hondo horixkaren gainean. Baina ez dut beste aukerarik. Egutegi zaharren eta bulego-paper horituen atzealdean ari naiz idazten. Gutunetarako papera Hugo Rüttlingerena da, bildumagile eta hipokondriako galanta bera.

Egia esan, Hugorekin hasi beharko luke txosten honek, ez balitz haren bildumazalekeriagatik eta haren hipokondriagatik, ez bainengoke ni gaur hementxe; bizirik ere ez nengoke, ziur aski. Nire lehengusina Luiseren gizona zen Hugo eta nahiko diruduna. Galdara-fabrika batetik zetorkion aberastasuna. Oso galdara bereziak ziren, eta Hugok bakarrik egiten zituen. Tamalez, ahaztu dut zerk egiten zuen galdara hura hain berezi, azalpena sobera entzun behar izan banuen ere. Garrantzirik ere ez du orain. Kontua da hain zela Hugo aberatsa, ezen zerbait berezia edukitzeko beharra baitzuen. Beraz, ehiza barruti bat erosi zuen. Berdin-berdin eros zitzakeen lasterketa zaldiak edo

yate bat. Baina Hugo zaldien beldur zen, eta zorabioak jotzen zuen itsasontzi batean sartu orduko.

Ehiza barrutia ere izen ona ez galtzeagatik bakarrik mantentzen zuen. Tiratzaile txarra zen, eta orkatz errugabeei tiro egitea desatsegina zitzaion. Negoziokideak gonbidatzen zituen, eta haiek burutzen zuten, Luiserekin eta ehiztariekin batera, onartutako ale kopurua akabatzeko lana, Hugo bera etxaurreko etzaulki batean erdi lo egoten zen bitartean eguzkipean, eskuak sabelaren gainean gurutzatuta. Hain bizi zen itota eta leher eginda, lo-kuluxkan hasten zen besaulki batean eseri bezain pronto: gizon erraldoi eta gizen bat, alde guztietatik ikara ilunek estututa eta gaina hartuta bizi zena.

Nik atsegin nuen, eta basoan eta ehiza-etxean egun lasai batzuk igarotzeko zuen zaletasuna partekatzen nuen harekin. Ez nion trabarik egiten hura besaulkian lo zegoen bitartean. Ibilaldi laburrak egiten nituen, eta isiltasunaz gozatzen nuen, hiriko asaldura atzean utzita.

Luisse ehiztari amorratua zen, pertsona osasuntsu eta ilegorri bat, bidean gurutzatzen zitzaion edozein gizonekin maite jolasetan hasten zena. Etxeko lanak biziki gorroto zituenez, atsegin zuen ni noizik eta behin Hugoz pixka bat arduratzea, kakao esnea prestatuz eta haren ezin konta ahal edabe nahastuz. Izan ere, Hugo osasunak kezkatzen zuen, modu gaixotian kezkatu ere. Ni ez nintzen hori ulertzeko gauza, bestela ere baitzen haren bizitza osoa itolarri etengabeko bat, plazer bakarra eguzkipean lo-kuluxka bat egitea zuela. Kexatia zen oso eta, negoziotarako uste behar zitzaion gaitasuna gorabehera, ume txiki bat bezain beldurtia. Biziki maite zituen osotasuna eta ordena, eta hortzetako bi eskuila hartuta bidaiatzen zuen beti.

Egunero erabiltzeko objektu bakoitzetik ale bat baino gehiago izaten zuen; horrek segurtasuna ematen ziola zirudien. Gainerakoan, oso ikasia zen, sotila eta karta-jokalari kaskarra.

Ez dut gogoratzen inoiz harekin inolako mamirik duen elkarrizketarik eduki izana. Batzuetan egiten zuen saiakeraren bat, baina garaiz uzten zuen elkarrizketa bertan behera, lotsa-gatik beharbada edo, besterik gabe, nekagarriegia zitzaiolako. Edonola ere, pozik nengoen hala egiten zuelako, bestela deseroso sentitzea besterik ez baikenuen lortuko.

Garai hartan, gerra atomikoa eta haren ondorioak beste hizpiderik ez zen, eta, horrenbestez, Hugok elikagaien eta bestelako objektu garrantzitsuen hornigai multzo txiki bat bildu zuen ehiza-etxean. Luisek zentzugabetzat zuen hura guztia, hase-rreru egiten zen eta beldur zen, zurrumurrua zabaldu eta horrek lapurrak erakarriko ote zituen. Horretan arrazoi zuen ziur aski, baina halakoetan ezin hautsizko setan gotortzen zen Hugo. Minak sentitzen zituen bihotzean eta sabelean, eta azkenean Luisek etsi egiten zuen. Azken batean, bost axola zitzaion.

Apirilaren hogeita hamarrean, Rüttlingerdarrek berekin ehiza-etxera joatea gonbidatu ninduten. Garai hartan bi urte ziren alargundu nintzela, bi alabak helduak ziren ia, eta nahi bezala antola nezakeen nire denbora. Hala eta guztiz ere, probetxu gutxi ateratzen nion nire askatasunari. Betidanik izan nintzen egoneko pertsona, eta etxean sentitzen nintzen ondoen. Luiseren gonbidapenak, ordea, gutxitan baztertzen nituen. Maite nituen ehiza-etxea eta basoa, eta gustura egiten nuen hiru orduko auto bidaia. Apirilaren hogeita hamar hartan ere onartu egin nuen gonbidapena. Hiru egunerako asmoa genuen, eta ez zen izango beste inolako gonbidaturik.

Ehiza-etxea bi solairuko egurrezko etxe bat da berez, enbor mardulez eraikia eta gaur egun oraindik egoera onean. Beheko solairuan sukalde-egongela handi bat dago, dena zurez josia; ondoan, logela bat eta jaki-gordailu txiki bat. Goiko solairuan, egurrezko galeria batek alderik alde inguratuta, hiru gela txiki daude gonbidatuentzat. Gela txiki horietako batean, txikienan, egiten nuen hasieran nik lo. Berrogeita hamar bat pausora, erre kara daraman aldaparen erdian, egur landu gabez egindako etxe txiki bat dago ehiztariarentzat, gela bakarreko etxola bat berez, eta, ondoan, pistaren ertzean bertan, oholez egindako garaje bat dago, Hugok eraikiarazi zuena.

Hala, bada, hiru orduko auto bidaia egin eta herrian geratu ginen, Hugoren zakurra ehiztariarenetik jasotzeko. Ehiza txakur bavariar bat zen, Luchs¹ izenekoa, eta, Hugoren jabetza bazen ere, ehiztariak hazi eta trebatua. Bitxia bazirudien ere, ehiztariak lortua zuen zakurrak Hugo nagusitzat hartzea. Luiseri, berriz, ez zion kasurik egiten; haren esanak bete ere ez zituen egiten eta alde egiten zion ondotik. Ni neutraltasun atseginez tratatzen baninduen ere, gustura geratzen zen nire inguruan. Larru marroi gorrixka iluneko animalia polit bat zen, eta ehiza zakur bikaina. Ehiztariarekin pixka bat solastatu, eta hurrengo iluntzean Luiserekin ehiza larria zaintzera aterako zela adostu zuten. Luisek orkatz ar bat bota nahi zuen tiroz; ehiza debekua maiatzaren lehenean bertan amaituko zen. El-karrizketa luzatu egin zen, mendialdean ohikoa den moduan, eta, are, Luisek ere –gainerakoan ezin baitzezakeen halakorik

¹ Alemanez, katamotz. (Itzultzailearen oharra)

jasan— kontrolatu egin zuen ezinegona; ez zuen ehiztaria go-gaitu nahi, haren beharra zuenez.

Hirurak ziren ehiza-etxera iritsi ginenerako. Hugo berehala hasi zen autoko maletategitik hornigai berriak ateratzen eta horiek sukalde ondoko jaki-gordailuan gordetzen. Nik kafea egin nuen alkoholezko su txikian, eta, mokadutxoaren ostean, Hugo kuluxka bat egiten hasi zen une berean, berriz ere herrira joango ote ziren proposatu zion Luisek. Maltzurkeria galanta, argi eta garbi. Hala ere, abilezia handiz egin zuen hura, Hugoren osasunerako mugimendua ezinbestekoa zela argudiatuta. Lau eta erdiak ingururako konbentzitua zuen, eta garaile alde egin zuen berarekin. Banekien herriko ostatuan amaituko zutela. Luisek maite zuen egurgileekin eta nekazari morroskoe-kin harremantzea, eta inoiz ez zitzaion bururatu ere egin mutiko azeri haiek beraren bizkar barre egin zezaketenik.

Mahai gainetik ontziak jaso eta arropak zintzilikatu nituen armairuan; amaitu nuenean, etxaurreko aulki luzean eseri nintzen eguzkitan. Epel eta polit zegoen eguna eta, iragarpenaren arabera, oskarbi mantenduko zen. Eguzkia erdi sartuta zegoen izeien atzean, eta laster sartuko zen erabat. Ehiza-etxea ibar koskor batean dago, arroila baten bukaeran, mendi piko batzuen oinean.

Halaxe eserita nengoela eta aurpegian azken goxotasun izpia sentitu nuelarik, Luchs bueltan zetorrela ikusi nuen. Ziur aski ez zuen Luiseren esana egingo, eta hark bueltan bidaliko zuen zigortuta. Antzeman niezaiokeen errieta egin ziola. Nigana etorri, penaz begiratu eta burua pausatu zuen nire belauaren gainean. Halaxe egon ginen denbora-tarte batean eserita. Laztan egin nion, eta hitz kontsolagarriak esan nizkion, bai bainekien Luisek oso gaizki tratatzen zuela zakurra.

Eguzkia izeien atzean desagertu zenean, hozkirria hasi zen eta soilgunean itzal ubelak agertu ziren. Etxera sartu nintzen Luchsekin, sukaldeko ekonomika piztu eta haragi gisatuarekin nahasitako arroz moduko bat prestatzen hasi nintzen. Ez nuen zertan egin, baina ni neu gose nintzen, eta banekien Hugok behar bezalako afari bero bat lehenesten zuela.

Zazpitan, nire gonbidatzaileak itzuli gabeak ziren artean. Egia esan, ia-ia ezinezkoa zitekeen bueltan izatea, eta ez nuen espero zortzi eta erdiak baino lehen iristea. Beraz, zakurrari jaten eman, arroz gisatutik nire zatia jan, eta Hugok ekarritako egunkariak irakurri nituen kriseiluaren ondoan. Epeltasunak eta isiltasunak erdi lo utzi ninduten. Luchs sartua zen egurrezko berogailuaren azpiko txokoan eta arnasots txikian ari zen, gogobeterik. Bederatzietan, ohera sartzea erabaki nuen. Atea itxi eta giltza hartuta joan nintzen nire gelara. Hain nengoen nekaturik, berehala lokartu nintzen, edredoi hotz hezea gorabehera.

Eguzki-izpiek aurpegia argiztatu zidatarik esnatu nintzen, eta berehala gogoratu nuen bezperako gaua. Etxeko giltza bakarra genuen, bigarrena ehiztariak baitzeukan, eta, beraz, Hugok eta Luisek esnatu egin behar ninduten etxean sartzeko. Oheko atorra soinean, korrika batean eskailerak jaitsi eta sarrerako atea ireki nuen. Luchs intzirika eta urduri etorri zitzaidan, eta ziztu batean atera zen kalera nire aurretik. Logelara sartu nintzen, ziur banengoen ere han ez nuela inor aurkituko; izan ere, leihoak burdin hesiak zituen, eta burdin hesirik eduki gabe ere, Hugok ezin izango zukeen bere gorputza bertatik sartu. Oheak, jakina, ukitu gabe zeuden.

Zortziak ziren. Herrian geratuko ziren. Asko harritzen ninduen horrek. Hugok ezin zituen ostatuetako ohe txikiak

ikusitako ere egin, eta ni gau osoan ehiza-etxean bakarrik uztea bezain arduragabe ez zuten sekula jokatu. Ideiarik ere ez nuen zer gertatu ote zitekeen. Nire gelara berriz igo eta jantzi egin nintzen. Artean hozkirri zegoen, eta goizeko ihintzak dirdira egiten zuten Hugoren Mercedes beltzean. Tea egin eta pixka bat sartu nintzen berotan, eta, gero, herrirako bidetara ekin nion Luchsekin batera.

La sumatu ere ez nuen egin zer nolako hozkirria eta hezetasuna zegoen arroilan, hausnarrean bainetuz Rüttlingerdarrekin zer gertatu ote zen. Beharbada bihotzekoak emango zion Hugori. Hipokondriakoekin gertatu ohi denez, ordu-rako ez genituen haren gorabeherak oso benaz hartzen. Pausoa azkartu eta aurretik joateko agindu nion Luchsi. Zaunka alaian, aurrera joan zen. Ez zitzaidan mendiko botak jantztea bururatu, eta harri zorrotzekin baldarki estropezu eginez nindoan Luchsen atzetik.

Azkenean ere arroilaren irteerara iritsi nintzenean, Luchsen aiuma samin izua entzun nuen. Ikuspegia estaltzen zidan egurpilan bira egin, eta han zegoen Luchs, eserita eta aiumaka. Murturretik listu gorria zerion tantaka. Ondora makurtu eta lastan egin nion. Nire kontra estutu zen, dardaraka eta intzirika. Mingainean egingo zuten kosk edo kolpe bat hartuko zuten hortzetako batean. Nirekin batera aurrera jarraitzeko adoretu nuen, buztana hankartera jaitsi, nire aurrean jarri eta gorputzaz atzera bultzatzen hasi zitzaidan.

Ez nuen ulertzen zerk izutzen zuten hainbeste. Puntu hartan irteten zen pista arroilatik eta, ikus nezakeenaren arabera, han ez zen inor: dena baketsu goizeko eguzkipean. Gaitzitura, albo batera bultzatu nuen zakurra eta bakarrik jarraitu nuen

aurrera. Zorionez, abiadura moteldu nuen keinu hura egiteagatik, pauso gutxi batzuen ostean kolpe gogor bat hartu bainuen kopetan eta atzera egin nuen balantzaka.

Luchs berehala hasi zen berriz intzirika, eta nire hanken kontra estutu zuen gorputza. Nahasita, eskua luzatu nuen, eta zerbait laua eta hotza ukitu nuen: oztopo lau eta hotz bat, airea beste ezer egon behar ez lukeen lekuan. Zalantzati, berriz saiatu nintzen, eta berriz topatu zuen nire eskuak leiho bateko kristal moduko zerbait. Gero taupada ozenak entzun nituen, eta ingurura begiratu nuen, jabetu nintzen arte neure bihotztaupadak zirela, nire belarrietan burrunbaka. Bihotza ikaratu zitzaidan, ni ezertaz jabetu baino lehen ere.

Pista bazterreko enbor baten gainean eseri eta pentsatzen saiatu nintzen. Ez nintzen gauza. Bazirudien kolpean alde egin zidatela pentsamendu guztiek. Luchs erdi arrastaka gerturatu zitzaidan, eta haren listu odoltsuaren tantak erori zitzaizkidan berokian. Laztandu egin nuen, lasaitu zen arte. Gero, pistari begira geratu ginen, goizeko argipean hain lasai eta dirdiratsu ageri baitzen.

Beste hiru aldiz zutitu nintzen, konbentzitu nintzen arte han, nengoen lekutik hiru metrora, benetan zerbait ikusezina, laua eta hotza zegoela, aurrera egiten eragozten zidan zerbait. Haluzinazio bat izan zitekeela bururatu zitzaidan, baina ondotoxonekien ez zela halakorik. Berez, errazago onartuko nukeen zoroaldi txiki bat gauza ikusezin eta beldurgarri hura baino, baina hantxe zegoen Luchs, muturretik odola zeriola, eta hantxe zegoen nire kopetako koskorra, ordurako min ematen hasia.

Ez dakit zenbat denbora eman nuen enborraren gainean eserita, baina gogoan dut pentsamenduak behin eta berriz

zebilzkidala axolarik gabeko kontuen inguruan joan-etorrian, inondik ere gertakari ulertezinaz arduratu nahi ez balute bezala.

Eguzkia gorago zegoen eta bizkarra berotzen zidan. Miaztu eta miaztu zebilen Luchs eta, azkenean, eten egin zitzaion odol jarioa. Zauriak ez zuen larria behar.

Zerbait egin behar nuela ulertu nuen, eta Luchsi bertan eserita geratzeko agindu nion. Orduan, kontu handiz eta eskuak luzatuta gerturatu nintzen oztopo ikusezinaren lekura, eta haztamuka hasi nintzen, arroilako azken arrokarara iritsi nintzen arte. Handik ezin nuen jarraitu. Pistaren beste aldera eginda, berriz, errekarara iritsi nintzen, eta orduan konturatu nintzen pixka bat geldotzen zela ura eta gainezka egiten zuela. Errekak, hala ere, ur gutxi zeraman. Apiril osoa lehorra joan zen eta urtzaldia igaroa zen ordurako. Hormaren beste aldean—gauza horri horma deitzera ohitu naiz, izenen bat eman behar bainion, egon badagoenez—, ibilgua ia lehor zihuan zati batean, eta gero berriz agertzen zen ura, erreka bat osatuz. Kareharri iragazkorak utziko zion urari berriz lurrazalera ateratzen. Hormak ezin zuen, beraz, lurrean oso sakon sartu. Une batez, arindu azkar bat sentitu nuen. Ez nuen erreka hura gurutzatu nahi. Ez zen pentsatzekoa horma bat-batean amaituko zenik; hala balitz, Hugok eta Luisek ez bailukete arazorik itzultzeko.

Bat-batean, denbora guztian nire inkontzientea asaldatu bide zuenaz konturatu nintzen, alegia, pista erabat hutsik zegoela. Norbaitek jo beharra izan zuen alarma aspalditik. Herriko jendea, jakin-minez, hormaren aurrean pilatu izana izango zen naturalena. Are, inor hormaz ohartu izan ez balitz ere, Hugok eta Luisek haren kontra egin behar izan zuten. Begi

bistan inortxo ere ez egotea horma bera baino misterioitsuagoa iruditzen zitzaidan.

Eguzki-argitan egonik ere, hotzikarak hartu ninduen. Lehenbiziko landetxe txikia, etxola bat baino ez, hurrengo bihurtugunean bertan zegoen. Erreka igaro eta mendi hegala pixka bat igotzen banuen, ikusi egingo nuen.

Luchsengana itzuli eta adoretu egin nuen. Izatez, oso zentzuduna zen; nik neuk bihotz-altxagarri gehiago behar nukeen. Ustekabean, pozbide handia nuen Luchsen konpainia. Oinetakoak eta galtzerdiak erantzi eta erreka igaro nuen. Hormak mendi hegalean aurrera jarraitzen zuen lerroan. Etxola ikusi nuen, azkenean ere. Lasai ageri zen eguzki-argitan: irudi baketsu eta ezagun bat. Iturriaren ondoan gizon bat zegoen zutik, esku kakotua erdibidean zuela, ur-txorrotaren eta aurpegiaren artean. Gizon zahar txukun bat. Galtza-uhalak jaitzita zituen, sugeen modura dilindan, eta atorrako mahukak jasota. Eskuak, ordea, ez zuen aurpegirainoko bidea amaitzen. Zirkinik ere ez zuen egiten.

Begiak itxi eta zain geratu nintzen; gero, berriz begiratu nuen hara. Gizon zahar txukunak zirkinik egin gabe jarraitzen zuen. Ohartu nintzen harrizko uraskaren ertzean zituela bermatuta belaunak eta ezkerreko eskua; beharbada horrexegatik ezin zuen erori. Etxolaren ondoan baratze txiki bat zegoen, eta, bertan, peonien eta dizentra loreen ondoan, sukalderako belarrak zeuden. Soildutako amañi-lili mehar bat ere bazegoen, ordurako lore guztiak galduta. Bero joan zen apiril hura, udan bezala kasik, baita hemen mendialdean ere. Hirian ere zimelduak ziren ordurako peoniak. Tximiniatik ez zen kerik irteten.